

TESTU LITURGIKOEN ITZULPENA

Eustasio Etxezarreta

Liturgi itzulpenen koordinatzailea

Sarrera

Arratsalde on.

Europako Literatura Itzultzaileen Elkarteek Kontseiluak Donostian batzarra duela eta, EIZIE - Euskal Itzultzaileen Elkarteak omenaldi bat eskaini nahi die itzulpengintzan lan egin duten talde eta pertsona jakin batzuei Itzulpengintzari buruzko Jardunaldi hauen barruan. Besteak beste, Biblia, liturgia eta katekesiko testuak, eta orokorrean testu sakratuak, euskaratzen aritu izandako taldekideak dira ohorezko bazkide izendatu nahi dituenak.

Luzea da omenduen zerrenda; 40 inguru denetara. Hala ere, gehiago dira zalantzarik gabe zerrenda horretan egon beharko luketenak, egin duten lana kontuan hartuz gero. Zera esan nahi dut: hain zabala denez testu sakratuen itzulpenaren alor hau, irizpide objektibo bat hartu beharra zegoen nolabait mugatzeko. Horrela, bada, Elizaren jardunean eta bizitzan testu nagusi eta ofizial diren Biblia, liturgia, katekesia eta antzekoak hartu dira erreferentzia gisa. Eta hauen itzulpenean ere, aldiak eta aldiak izan ohi dira; ez dute denek neurri berdinean lan egiten. Badira beren kasa lan apalagoetan eta zaratarik atera gabe aritu izan direnak. Baina oso zaila gertatzen da horien guztien zerrenda osoa egitea. Nolanahi ere, ageriko aitormenik jasoko ez arren, gogoan izan nahi ditugu horiek guztiak esker onez.

Hor nonbait irakurri dut, aitzindari izan omen direla testu sakratuen itzultzaileak. Baina egoki izango da puntu honetan ere gauzak bere lekuan jartzea. Izan ere, testu sakratuen itzulpen-lanak ez ziren Vatikanoko II. Kontzilioarekin hasi. Ez dugu hemen eliz liburuen itzulpenen historia xehea egingo, baina bidezko da gogoratzea tradizio nahiko luzea dutela, esate baterako, Bibliaren itzulpenek, Leizarragaren «*Iesvs Christ gyre Iavnaren Testamentv Berria*»-tik (1571) hasi eta Olabideren «*Idazteuna*» (1958), edota Xabier Iratzederren «*Salmoak*» (1963) arte, Kontzilio aurrekoak aipatzearren.

Ez ditugu ahaztuko, liturgi alorreko itzulpen-lanak ere: Orixeren «*Urte Guziko Meza-Bezperak*» (1950) eta Jaime Kerexeta eta Santi Onaindiaren «*Eguneroko Meza*» (1963).

Bestalde, kristau-ikasbide edo doktrinei dagokienez ere, Trentoko Kontzilioak, XVI. mendean, fede-hezieraren eliz eginkizun nagusia betetzeko Kristau Ikasbide bat egitea agindu zuenetik aurrera ugariak izan dira, ehundik gora, euskaraz gure euskalki guztietan edo gehienetan argitara emandako doktrinak.

Esandakoarekin nolabait argitua geratzen da itzultzaile bezala aitzindari izate

horren esanahia. Hala ere, egia da, neurri batean, aitzindari izan zela Eliza itzulpen-lanetan. Kontzilioarekin etorri zen kristau-ospakizunetan herri-hizkuntzak erabiltzeko erabakiak izugarritzko eragina izan zuen itzulpengintzan. Gogotik egin behar izan zuen taldeak lan ordu arte latinez zeuden eta latinez erabiltzen ziren liturgi liburuak euskaratzeko. Gizarte-bizitzan, ordea, garai hartan oso mugatua zegoen oraindik euskararen erabilera; eskoletan, hedabideetan, unibertsitatean, etab., ez zegoen euskara erabiltzerik; demokrazialdikoak dira, batez ere, irakaskuntzako testu-liburuak, irratitelebista, egunkariak, literatura unibertsalaren itzulpenak, etab.

Ikuspuntu hau begien aurrean dugula, liturgi liburuen itzulpenari lotuko natzaio neure solasaldi honetan. Historia apur bat egingo dut lehenengo, talde-lan honetan elizbarruti bakoitzaren izenean gutxi-asko parte hartu zutenak gogoratuz eta lan hauetan erabilitako metodoa azalduz. Eta ondoren hitz-erdi bat esan nahi nuke itzulpen-lan horien argitalpenei buruz.

Liturgi liburuen itzulpen-lanen historia

Lehenago aipatu dugunez, Vatikanoko II. Kontzilioak aro berri bat markatzen du mundu guztiko Eliza katolikoaren bizitzan eta jardunean. Ordu arte latina zen liturgi ospakizunetako hizkuntza ofizial bakarra. 1963an, Liturgiari buruzko Konstituzioa deritzan dokumentua onartzearekin, ateak zabaldu ziren herri-hizkuntza biziak erabili ahal izateko. Erabaki honek aparteko eragina izan zuen mundu guztiko hizkuntzetan, eta baita euskararengan ere.

1964an Paulo VI. Aita Santuak nazioetan liturgi batzordeak eratzeko agindua eman zuenean, nazio bakoitzeko gotzainek beren taldeak eratu zituzten lanari ekiteko. Gure artean lehenengo pausoak zalapartatsuak izan ziren; presaka emanak. Garai hartan ez zen elizbarrutiak pastoralgintzan elkaturik aritzeko tradizio edo ohiturarik. Eta epe laburrean eman beharrak zeudenez lehenengo testu itzuliak, ez zegoen denbora galtzerik; berehala hasi ziren lanean, baina talde bakoitza bere aldetik.

Bi itzulpen-talde sortu ziren hasieran: bata iparraldean, Baionako elizbarrutian, Beloken elkartzan zirelarik lanerako; bestea, berriz, Donostian. Iruñe eta Gasteizko Gotzainek Donostiako taldearen lanez balia zitezela esan zien beren apaizei. Bilboko Gotzainak, berriz, Jaime Kerexeta eta Santi Onaindiak aurre hartan bizkaieraz argitaratua zuten «*Eguneroko Meza*» erabiltzeko erabakia hartu zuen bere elizbarrutirako.

Izan ziren bizpahiru saiakera informal hango eta hemengo itzultzaileak elkartu eta testurik oinarritzenak itzulpen bakar eta berdinean Euskal Herri osorako emateko. Hain zuzen, hizkuntza bakoitzean itzulpen bakarra izan zedila eskatzen zuten Erromatik. Gainera, euskara batuari buruzko erabakiak geroago etorri baziren ere, bazen orduko hainbat talde eta mugimendu euskararen batasuna ezinbesteko jotzen zuenik. Horrela, 1966 eta 67an elkarrekin egindako saiakera haien ondorioz, eragozpenik aski azaltzen zen euskalkien arteko erabateko baterakuntza eginez, kristau euskaldun guztientzat baliagarria izan zitekeen itzulpen bat bera lortzeko.

Gauzak horrela, «Universa laus» deitu erakundeak nazioarteko Jardunaldiak egin zituen 1967an Iruñean eta, egokiera hartaz baliaturik, gure egoeraren azterketa egin zuten euskal itzulpen-taldeetako ordezkari batzuek Erromako Liturgi Batzorde Nagusiko idazkaria zen Annibale Bugniniarekin. Bilera hartan erabaki honetara iritsi ziren: Mezaren ospakizunean egunero erabili ohi diren zatietan beharrezko zela itzulpen-batasun osora, edo ahalik handienera behintzat, iristea Euskal Herri osorako. Zati hauetan sartzen dira damu-otoitza, «Aintza zeruetan», fede-aitormena edo Kredoa, eukaristi otoitzak, «Gure Aita», etab. Irakurgai eta otoitzetan, ordea, bidezko ikusten zen askatasun handiagoz jokatzeari, betiere oinarrizko bi irizpide gidari harturik: entzuleek ulertzeari lehentasuna ematea, alegia, baina, aldi berean, itzulpenaren batasuna zaintzea ahal zen neurririk handienera. Arazoak arazo, hurbiltze-ahalegin serioak egin ziren batasunerako bidean.

Horrela igaro ziren lehenengo urteak. Baina 1968an eta 69an suertatutako gertaera batzuek erraztu egin zuten itzulpen-lanetan aurrera-pauso bat ematea. Batetik, gotzain berriak izendatu zituzten Iruñean, Bilbon eta Donostian. Bestalde, Meza-liburu eta Irakurgaien liburu berriak argitaratu zituzten Erroman Eukaristiaren ospakizunerako. Liburu horien itzulpena egin beharra zuten Bizkairako ere eta, beraz, beste itzultzaile-talde bat eratu beharra zeukaten Bizkaiko elizbarrutian. Ez zen bidezkoa hiru itzultzaile-talde aritzea lan bera egiten, bakoitza bere aldetik.

Gertaera hauek eta gure herrian gero eta beroago sumatzen zen euskararen batasunaren aldeko mugimenduak –hain zuzen ere urte hartan, 1968an, egin zuen Euskaltzaindiak Arantzazuko Biltzarra–, arazoari irtenbide bat ematera behartu zituen gure Gotzainak. Eta Baionako Gotzainarekin bat eginik, erabakia hartu zuten, itzulpen-talde bakarria eratu behar zela Euskal Herri osorako eta talde honek egin behar zituela liturgi liburu berrien itzulpen-lanak. Beraz, handik aurrera elizbarrutiarteko lan-talde bakarrean biltzen ziren eta elkarrekin egiten zituzten, bai liturgi testu berrien itzulpenak, bai lehenago talde bakoitzak bere aldetik itzulitako testuen berrikusketa.

Lankideak

Milaka izan dira talde honek itzulpenetan elkarlanean emandako orduak; milaka baita ere itzulitako testuen orri-kopurua. Lan honetan aritu izan diren itzultzaileak ez dira beti berak izan hasieratik azkenera, ezta gutxiagorik ere. Lankideen izenak ematea beti izan ohi da gauza arriskutsua eta ez gutxiago gure talde honi dagokionez; izan ere, ez dute denek jarraipen eta iraupen bera izan; alderantziz, aldatzen joan izan dira. Hala ere, iraupen handiena izan dutenen izenak aipatuko ditugu:

Baionako elizbarrutitik: Pierre Andiazabal, Jean Marie Diharce, hau da, «Xabier Iratzeder», Benoit Olhagaray (†), Jean Hiriart-Urruty (†), Pierre Narbaitz (†), Emile Larre, Pierre Xarriton, Arnaud Indart, Michel Idiart...

Iruñeko elizbarrutitik: Jose M^a Azpiroz (†), Migel Plaza (†), Juan Goikoetxea (†), Tomas Otxandorena, Basilio Sarobe, Bixente Hernandorena (†), Martin Azpiroz...

Bilboko elizbarrutitik: Karmelo Etxenagusia Bilboko Gotzain Laguntzailea, Lino

Akesolo (†), Mikel Zarate (†), Bitoriano Gandiaga (†), Jaime Kerexeta (†), Joan Bizente Gallastegi, Jose M^a Rementeria, Lorentzo Zugazaga...

Donostiako elizbarrutitik: Manuel Lekuona (†), Anizeto Zugasti (†), Antonio Sarasola (†), Jose Luis Ansorena (†), Martzelo Gaztañaga, Joan M^a Lekuona, Jose M^a Aranalde, Agustin Apaolaza, Jesus Gaztañaga (†), Jose Agustin Orbeago, Jose Antonio Mujika, Maria R. Iparragirre, Eustasio Etxezarreta...

Lan-metodoa

Donostiako Seminarioan egiten zuten lanaldia. Astean behin egun bateko bilera izaten zen hasieran; baina, artean autopistarik ez eta kostako errepide zaharra erabiliz, Bilbo aldetik etortzen zirenek denbora gehiago behar izaten zuten bidean, lanean egiten zutena baino; eta askotan negu-partea izango zen. Horregatik, gerora hamabostean behin biltzen zen taldea bi eguneko lanaldia egitera. Horrela, joan-etorri batekin lehenago hiru egunean adinako ordu-kopuruko lan-saioa egitea lortzen zen.

Lan egiteko erak ez du aparteko misteriorik. Taldeko norbaiti lehenengo itzulpen-zirriborroa eskatzen zitzaion, eta taldeak elkarrekiko bileran aztertzen zuen oinarrizko testu hori esaldiz esaldi, bi ikuspegitik: jatorrizko testuaren edukia itzulpenean ondo jaso ote zegoen begiratu, alegia, eta euskararen erabilera egokia eta euskalkietan hedatuena lortzen saiatuz, entzuleentzat ulergarri gerta zedin.

Itzulpen-taldea Euskal Herriko lurralde desberdinetako ordezkariekin eratua zegoenez, kalitate eta aberastasun berezia bermatzen zion talde-lanak itzulpenari; esaldien lekuan lekuko berezitasun eta bitxikerietan galdu gabe, leku desberdinetako eta euskalki desberdinetako jendeentzat ulergarriago eta erabilgarriagoak ziren esamoldeak aurkitzea zen taldearen ahalegina; hizkuntzaren beraren barne-batasuna egiten joatea; bestalde, taldeak leundu edo berdindu egiten ditu itzultzaile bakoitzak izan ohi dituen puntu bereizgarriak eta itzultzaile desberdinen lanek izan ditzaketan aldeak, ñabardurak eta desberdintasunak. Itzulitako testua, nolabait esateko, despertsonalizatua geratzen da talde-lanean. Eta hori ondo dator liturgiako testuentzat, anonimoak izan ohi direlako liturgi liburuetakako testuak, baita hauen itzulpenak ere. Elizarenak dira testu horiek eta Elizarentzat, hau da, kristau-elkartearentzat eginak.

Baina liturgiako liburuetan dauzkagun testuak desberdinak dira literatura-ikuspegitik begiratuta; testu horietako asko hitz lauz idatziak dira, prosa-alorrekoak; baina beste zati asko poetikoak dira; eta hauek ere batzuk Bibliatik hartuak eta, beraz, hebreerak edota grekoak poesigintzan dituen berezitasunak dituzten testuak; besteak, berriz, Elizaren bizitzan mendeetan zehar sortutakoak eta, beraz, era eta eskema desberdinetan moldatutako olerki-testuak.

Testu poetikoen itzulpenak jokabide berezia eskatzen zuen eta lan honetan beste taldea aritu zen. Salmoen itzulpena izan zen talde honi eman zitzaion lana eta bi itzulpen-mota egin zituen: bata Iratzedarren itzulpena hegoaldeko elizbarrutietarako moldatzea; bestea, berriz, Orixeren Salmo-itzulpena oinarri harturik, hura liturgiarako egokitzea.

Talde honen esku geratu zen, bestalde, gorazarreak eta zenbait eliz kantu itzultzea. Kontuan izan behar da, hala ere, horrelako testuen itzulpen-lana nahiko berezia izan ohi dela, olerkia edo poesia ez delako mezuaren edukia bakarrik; aldi berean forma poetiko-literario ere bada.

Liturgi liburuetako euskara

Gaurko gure solasaldi honen gaia itzulpena bada ere, zerbait esan beharra dagoela iruditzen zait, elkarrekin taldean itzultitako testu hauen argitalpenari buruz. Lehenago aipatu dugunez, 1968an elizbarruti arteko itzulpen-talde bakarra sortu zenez geroztik, elkarrekin egin izan dira itzulpen-lanak. Baina horrek ez du esan nahi itzulpen-testu bakarra eta erabat berdina lortzen zenik guztientzat. Gauza jakina da, elkarrekin egindako oinarrizko itzulpen horrekin hiru argitalpen egin izan direla euskaraz: bata lapurteraz, iparraldeko elizetan erabiltzen dena (esan dezagun badela zubereraz egindako bertsiok honen aldaera bat ere), bestea bizkaieraz, Bizkaiko elizetarako, eta hirugarrena garai batean «gipuzkera osatua» esan ohi zen euskara-motan egina, Gipuzkoan, Nafarroan eta Araban erabiltzen dena; azken hau hasiera hartan erabili zen, baina gerora eta gaur egun euskara batuan egiten dira argitalpen hauek.

Ulergaitza gertatuko da, zalantzarik gabe, zuetako askorentzat 2002. urtean horrelako kontuak entzutea. Baina gauzak bere garaian kokatzea komeni da, erabaki horren sustraian dauden arrazoiak ulertu ahal izateko. Kontuan izan behar da, 1964tik 1975era bitartean egin zirela liturgi testuen itzulpen-lan gehienak. Argitalpenak, berriz, bi alditan egin izan dira: hasierakoak, 1970a bitartean egindakoak, behin-behinekoak ziren; bi argitalpen egiten ziren orduan: bata lapurteraz eta bestea gipuzkeraz; Bizkaian, berriz, lehen esan dugunez, Kerexeta eta Onaindiaren euskarazko Meza-liburua erabiltzen zuten. Ondoren 1975etik aurrera eginak izan dira argitalpen ofizialak esan genitzakeenak.

Urte haietan zalantza asko zegoen artean euskara batuari buruz; urteak joan dira oinarrizko arautze hori egin den arte: deklinabidea, aditza, hiztegia eta beste hainbat gauza astiro-astiro erabaki izan dira. Bestalde, gaur egun indarra hartu du eta sendotua dago euskara batua ikastetxeetan, unibertsitatean, hedabideetan, batez ere Euskal Irrati-Telebistan, etab. Baina garai hartan ez zen horrelakorik.

Elizbarrutiarteko itzulpen-taldearentzat eta eliz arduradun diren gotzaintzat kezkarria zen une hura euskarari zegokionez: borroka-gai gertatzen zen gizarteko hainbat gunetan; eliztarrak alfabetatu gabeak ziren, baita gaur egun ere asko eta asko; gainera norberak irakurriz ez, baizik eta entzun hutsez jaso beharreko testuak dira orokorrean liturgiakoak; euskara baturako derrigorrez egin behar izan ziren aukerak zirela medio, urruti geratzen zen batua, hainbat kasutan behintzat, bai lapurtera eta zubereratik, baita bizkaieratik ere; belarria ohitu gabe zegoen orokorrean berria gertatzen zen hizkuntza horretara. Eta testuinguru honetan, herriari hitz egin behar zioten apaizek zapuztu egiten zuten hasiera hartan beraiek ondo ezagutzen ez zuten euskara batua.

Horrela zeuden gauzak liturgi argitalpen ofizialak egiten hasi behar zen garaian.

Urteetan irauteko eta jendaurrean erabiltzeko ziren liburuetan zer euskara-maila eta -mota erabili erabakitzea ez zen inondik ere gauza erraza izan. Euskara batuaren aldeko mugimenduak zenbaterainoko sendotasuna eta iraupena izango zuen ez zen artean garbi ikusten. Bide horretatik sartzeak, bestalde, jokabide desberdinaren haustura sor zezakeen gure elizbarrutien artean, desberdina baitzen, eta da, lurralde bakoitzeko egoera gai honetan.

Egoera nahasi horri irtenbidea aurkitzeko, bi urtetan zehar hainbat pertsona eta talderekin bilera asko egin ondoren, «Eliz argitalpen ofizialetarako elizbarrutiarteko Batzordea» eratu zen 1975ean. Argitalpenetarako bidea erabakitzea zen Batzorde honen zeregina. Elizak bere idazkien argitalpenetan euskara batuaren bidea hartu behar zuen, baina pausoz pauso egin beharra zegoen bide hori. Horrela bada, bi jokabide bereizi beharra ikusi zuen Batzordeak une hartan, argitalpenen hartzaileen arabera: haur eta gazteentzat egiten ziren argitalpenetan euskara batua erabiliko zen. Izan ere, haur eta gazteen belaunaldia alfabetatua zegoen eta ikastolako beste liburu guztiak euskara batuan idatziak zeuzkaten. Ez zen arrazoirik ikusten erlijio-liburuak euskalkietan egiteko.

Baina, une hartan, gauzak gehiegi behartzea zirudien, liturgi elizkizunetarako egiten ziren liburuetan eta orokorrean herri xehearentzat pentsatuak zeuden beste zenbait idazki ofizialetan euskara batua erabiltzea, elizkizunetara zetorren jende larria, lehen esan dugunez, ez baitzen alfabetatua; etxeko euskara egiten zuen. Horregatik, batasunaren helburua begien aurrean izanik ere, euskalkien eta batuaren arteko erdi bide bat erabiltzeko erabakia hartu zen, ulerkera eragotziko ez zuten batuaren alderdiak onartuz eta ulerkera zailduko zuten beste zenbait puntu geroagorako utziz. Eta, jakina, garai hartan borroka gogorak sortzen zituen zorioneko «H-a» ere alde batera utziz.

Garbi utzi nahi nuke, erabaki honek ez duela esan nahi Euskaltzaindia aintzakotzat hartzen ez zenik, edota Elizak bere jarduera praktikoan Euskaltzaindiaren pareko beste erakunde bat izan nahi zuenik euskarari buruzko arazoetan. Euskaltzaindiak emandako arauak onartuak ziren beren hartan, baina bide hori pausoz pauso egin beharra ikusten zen; bere denbora eskatzen zuen; pedagogia bat erabili beharra zegoen.

Jokabide honek itzulpen-testu beraren hiru argitalpen egitera eraman gintuen. Eskura eman zaizkizuen orrietan ikus dezakezue, zer-nolako itzulpen-batasuna dagoen eta nolako desberdintasuna hiru argitalpenen artean. Esaldien egitura berdintsua izanik, aditz laguntzailea da bereziki desberdintasuna sortzen duena. Nolanahi ere, batzordearen erabaki hartan espreski esana zegoen, une hartan «oraindik» ez zela posible ikusten aurrerago joatea baturantzako bidean. Baina geroak erakutsi du, apurka-apurka euskara batua erabat erabiltzera iritsi garela aspalditxotik Gipuzkoa, Nafarroa eta Arabari dagokienez behintzat, eta argitalpen batzuetan baita Bizkaikoetan ere.

Itzulpenaren eraberrikuntza

Bukatze aldera, azken puntu bat azaldu nahi dut: hiru urteotan berrikusketa sakon bat egiten ari gara. Duela 30 edo ia 40 urte egindako itzulpen haiek aztertzen ari gara

berriro; zenbait alditan presaka samar eta era zalapartatsuan egin behar izan ziren lehengo itzulpen haiek gaurko esperientzia eta ikuspegitik begiratzeko. Bitarte honetan «Elizen Arteko Bibliaren» itzulpen-lanen esperientzia ere lagungarri dugu oraingo berrikusketa honetan.

Eskuartearen dugun itzulpen-lanak bi helburu ditu nagusiki: jatorrizko testuaren edukia ondo jasotzen den ikustea da berrikusketa honetan kontuan hartu behar dugun lehenengo puntua. bigarrena, berriz, euskarari dagokiona. Urte hauetan euskarak egin duen ibilbidea garrantzitsua da; sendotasun eta heldutasun handia lortu du; finkatu egin dira euskararen hainbat osagai; baina, gainera, irakurlearen gaurko egoera eta, gure kasuan zehatzago esan beharko genuke, entzulearen gaurko egoera asko aldatu da orduetik hona, gizarte-bizitzan asko hedatu delako euskararen erabilera.

Aurreratu samarra daukagun itzulpen-berrikusketaren lan hau bukatzean, argitalpen berriak egingo ditugu: Meza-liburuaren eta Irakurgaien liburuaren argitalpen berriak. Eta hauen bertsio bat bederen erabat euskara batuan egingo dugu.

Hori zen esateko nuena, eta esana gelditzen da. Mila esker pazientziaz entzuteagatik!